

2012ko MARTXOAREN 22KO BERDINTASUN BATZORDE IREKIA

Bertaratuak: Hita Sagaseta (Eguzki Lore), Aitziber Zapiain (Gaztetxea) eta Garbiñe Elizegi (Alkatea).

Bilerari hasiera eman ondoren aurreko bileraren laburpena aztertu ondoren konturatzeko gara laburpenetik kanpo gelditu zela aurreko bileran Martxoaren 8ren harira udaleko osoko bilkuran mozioa aurkeztea erabaki zela.

Berdintasun batzordetik proposatutako mozioa ahobatez onartu zen udaleko azkenengo osoko bilkuran, beraz, mozioaren balorazio positiboa egiten da eta udaleko talde politiko guztiei batzordetik proposatzen diren ekimenen babes eskatuko zaie beren konpromisoa ez dadin hitz hutsetan gelditu.

Teknikarien kontratazioaren inguruan egoeraren berri ematen da. Alde batetik deialdia atera da baina epea bukatu arte ez dugu jakingo NG-tik dirulaguntza izango denik. Baztango teknikaria kontratzeko beste udalen batek uko egin beharko baitio bereari. Beste aldetik, B plan gisa INEM-eko langileak kontratzeko deialdira ere teknikariaren eskaria egin da.

Aurreko bileran hitz egindakoaren arabera teknikaririk lortu ezean diagnostikoa eta plana egiteko teknikari bat kontratatzen alde egin zen. Udaleko aurrekontuan dagoen diruaren partidaren arabera egin daiteke. Bi aukera ikusten ziren, plana egiteko zerbitzuko kontratazio bat egin edo teknikari bat kontratatu hilabete batzuetarako. Alkateak hurrengo bilerarako ekarriko du NG-ak duen iritzia honen inguruan.

Proposatzen da Mutil Dantzen inguruan dagoen eztabaidaren inguruan hitzaldiren bat antolatzea uda baino lehen. Horretarako Kultura batzordearekin elkarlanean egindako proposamen bat jorratzea erabakitzen da. Izen batzuk aipatzen dira mahai-inguru batean parte hartzeko konbidatzeko.

Denboraz justu gabiltzanez eta kultura batzordea apirilaren 17an denez hurrengo **BERDINTASUN BATZORDE IREKIA APIRILAREN 16AN IZANGO DA ARRATSALDEKO 18ETAN UDALETXEAN.**